



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Investigación

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 21ekoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2022-2023 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua aratu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2022ko ekainaren 28ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituen (Ikerketa Orokorra eta Espezifikoa).

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen lehenengo berritzea ematea (Ikerketa Espezifikoa), 2022-2023 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen bigarren berritzea ematea (Ikerketa Espezifikoa), 2022-2023 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Hirugarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2022ko ekainaren 28ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- 2022ko ekainaren 28ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 21ean.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea